

## Aitzinsolasa

Filosofiari, eguneroko bizitzan, ez zaio galdetzen teoria zientifikoen egituraz, gogoaren eta gorputzaren arteko harremanaz edota errepublikanismoaren ezaugarriez. Filosofo bat ondoan egokituz gero, gizaki orori bururatuko zaion galdera hau da: “zertarako balio du filosofiak?”, “zer egiten du filosofo batek?” edo, gehienez ere, “zer da, baina, filosofia?”.

Bada filosofiara hurbiltzeko maiz erabiltzen den beste aukera bat ere, Arrieta Urtizbeira irakasleak *Zertaz dihardu filosofiak?* liburuan (Jakin, 2002) gogor kritikatu duena. “Filosofia” hitza gure eguneroko hiztegian sartu dugunetik hitza esanahiz hustu da eta edozertarako balio du (edo ezertarako ez). Hari mota horretako esapideak dira “hau filosofiarekin hartu behar duzu”, “haren bizi-filosofia gustuko dut” eta antzeko beste asko. Besterik gabe, gure ustez, hitzaren eguneroko erabilerak ezin du giza jarduteari propio zaion gogoeta kritikoa baliogabetu.

Zer esan dezake filosofia ikasi duenak galdera eta jarrera horien aurrean? Ohikoena definizio bat prest edukitzea da, diskurtso txiki bat, apologia bat. Liburu honetan, ordea, filosofiak historian eman duena biltzen da, baita gaur egun ematen ari dena ere. Filosofiaren historiarekin batera, filosofiaren gai eta esparru zehatzak ere sistematikoki lantzen dira, eta, euskal filosofoek idazten dute horren guztiaren gainean.

Harira etorritz, printzipioz, karrera egiten hasi orduko, ikasle unibertsitarioak diziplina baten oinarrizko liburu eta metodoak zein diren argi eduki behar luke. Eta karrera amaitu ondoren, teorian bederen, oinarrizko erreferentzia bibliografiko gehienak irakurrita eta metodologia menderatuta izan beharko lituzke ikasle saiatuak.

Optimo hori oso zaila da betetzen. Akademiak ondo funtzionatuko balu ere (eta gaur egungo euskarazko unibertsitateetan, zinez, ez da horrela), nekez bil lezake gazte batek gurea bezalako jakintza-arlo batean funtsezkotzat jotzen den ondare literario osoa. Horrekin batera, idazkera soltea, zorrotzasun zientifikoa, ikerketarako gogoia eta dohaina... suposatzen zaizkio lizentziatzen den pertsonari. Gaitasun horiek guztiak lortzeko bizitza osoa behar bada ere, oinarri sendoen gainean eraiki beharreko gaitasunak dira.

Umil eta muga guztiekin, horretara dator liburu hau. Gure proiektuaren helburu nagusia hau da: filosofia euskaraz egiten dugunon artean erreferentziak eta metodologia bateratzea. Horretarako Filosofiako ikasketetan estandar bihurtu diren gaiak eta metodologia modu bateratuan aurkezten dituen “Filosofiako Gida” egiten saiatu gara.

## **LIBURUAREN PLANTEAMENDU POSIBLE BAT**

Liburuaren bertuterik handienetakoa, gure ustez, euskaraz egiten den filosofia garaikidearen hainbat joera, jatorri, eskola edota tradiziozako jendea proiektu kolektibo honetan biltzea da. Liburuia beste era batera egin bazitekeen ere, nahitaez beharrezkoa zen aditu-talde handi baten parte-hartzea eta laguntza, horri eskerrak lortu baita jatorrizko testu guztiak euskaraz idaztea.

Horregatik, edukiei dagokienez, ahalik eta antolaketaerik errazena eta, era berean, zorrotzena egiten saiatu gara. Abiatzeko, filosofiaren historia hautatu dugu, gure bizitzan ere lehenengoz honela jasotzen baitugu filosofia, filosofiaren historiaren bitartez, alegia. Askotan, nahastu egin ohi dira filosofia diziplina gisa eta filosofiaren historia. Askotan, kronologikoki antolatutako autoreen segida hutsari filosofiaren historia esaten zaio (edo are okerrago dena, filosofia). Liburu honen lehenengo atalean eskema horrekin apurtzen saiatu gara. Horretarako, sarreragileei aro historikoen ardatz filosofikoak koherenteki azaltzeko eskatu diegu.

Liburuaren lehenengo atala, atal entziklopedikoa da. Hor, adituek gai zehatzei buruzko sarrera-testuak landu dituzte eta, horrekin batera, alor horretan funtsezko iruditzen zaizkien liburuak gomendatu dizkigute (10 liburu oinarritzko, batez beste).

Liburuia argitaratu den 2004. urte honetan Kant hil zenetik 200 urte bete dira. Liburuan zehar irakurleak igarriko duenez, filosofo alemaniarra mugarri da filosofiaren historian. Kantek galdera nagusi batzuen azpian biltzen ditu filosofiaren funtsa eta zeregina. Liburuaren atal entziklopedikoari ekiteko, guk, Kanten eskemari jarraitu diogu. Alegia, hark plazaratutako lau galderen inguruan filosofian jorratu diren gaiak azaltzen saiatu gara.

Kanten ustez, arrazoimenaren gaineko interesa hurrengo galderetan bateratzen zen:

- 1/ Zer ezagut dezaket?
- 2/ Zer egin behar dut?
- 3/ Zer itxaro dezaket?
- 4/ Zer da gizakia?

Lehenengo galderari metafisikak erantzun behar dio, bigarrenaz morala arduratzen da, hirugarrenean kezka erlijiosoak ageri da, eta azkenekoak antropologiaren eremua zehazten du (zorrotz eta zehatz esan, Kanten ustez diziplina horiek guztiak antropologiara labur daitezke, lehendabiziko hiru galderak azken horren baitan biltzen baitira). Bestalde, galdera horien azpian jorra zitezkeen zenbait azpiatal ere landu ditugu, ikuspegi garaikide batetik alabaina.

Gertatu ohi den bezala, egin dugun gaien hautaketa partziala, mugatua eta baldintzatua da. Partziala, aurretik esan dugun moduan, beste batzuek beste gai batzuk hautatuko lituzketelako; mugatua, epe jakin batean liburu-formatoan sartu beharreko materiala sortu behar genuelako; baldintzatua, filosofia euskaraz idazteko prest dauden adituak bilatzeko arazoak izan ditugulako.

Gauza jakina da, orobat, Kantek bosgarren galdera ez zuela formulatu. Hala egin izan balu ere, ez zuen, segur aski, "Zer da euskal pentsamendua?" galdetuko. Guretzat, ordea, garrantzi handikoa da Euskal Herrian zertu den pentsamendua liburuan azaltzea. Gogoeta horrekin itxi dugu atal entziklopedikoa.

Liburuaren bigarren atala filosofian aritzeko gida metodologikoa da. Bertan, adibide egokiz hornituta, ikasleak lan akademikoak atontzeko behar dituen irizpideak aurkituko ditu. Eskaintzen diren iradokizun asko “sen oneko iradokizunak” dira, edozein pertsonak normaltzat edo logikotzat joko lituzkeenak. Horietan, ez da ezer berririk eskaintzen. Idazlanak egiten eta aurkezten ikasteko teknika bat proposatzen da, filosofiaren esparru naturala, izan ere, orrialde idatzia da, liburua, artikulua, idazlana. Horrek, trebatzea eskatzen du, irizpide jakin batzuen arabera behin eta berriz saiatzea. Teknika menderatzeko kontuan hartu beharrekoak ematen dira bigarren atalean.

Hizkuntzari dagokionez, zenbait kontzeptu filosofiko euskaraz emateko arazoak izan ditugu. Hizkuntza filosofikoa euskaraz estandarizazio-bidean dago eta, gaur egun, horri buruzko eztabaidak etengabe ematen dira gure artean. Horrela, 2004ko irailean, “Filosofiako terminoak euskaraz” mintegia antolatu genuen. Bertan bildu genituen filosofia eta euskara gaietan adituak, terminologia zalantzak eztabaidatzeko (ikus 3. eranskina: Hainbat erabaki terminologiaz). Espero dezagun liburu hau, horretan ere, lagungarri izatea.

Oro har, Euskaltzaindiaren araei jarraitu diegu. Bada, ordea, salbuespenik. Kasu horietan, guk, zuzentasun linguistikoaren aurrean ikuspegi filosofikoa hobetsi dugu. “Razional” terminoa erabili dugu, adibidez, “arrazional” hitzaren kaltean. Gure diziplinan, “razional” adierazteko “arrazional” hitza erabiltzeak muga kontzeptual bat suposatzen duela uste dugu, “razional”, “irrazional” eta “arrazional” hitzek kontzeptu filosofiko desberdinak adierazten baitituzte.

### ***NORI DAGO ZUZENDUTA LIBURU HAU?***

Eskuan daukazun ikasmateriala oso ohikoa da Europa eta Estatu Batuetako unibertsitate eta filosofia-institutuetan. Liburua, bere osotasunean, formazio-garaian edota ikerkuntzari ekiteko prest dauden ikasleei zuzenduta dago. Ikasleek hemen ikus ditzakete beren formazioan dauden gabeziak eta, bide batez, gabezia horiek zuzentzeko neurriak zein izan daitezkeen. Hemen proposatzen zaizkien etxeko lanak txukun eginez gero, pentsamendu filosofikoak exigitzen duen zorrotzetasuna bereganatzeko armak eskura edukiko dituzte ikasle horiek.

Horrez gainera, liburuak badu dibulgaziozko dimentsio interesgarri bat. Filosofian murgildu nahi duen euskaldunarentzat erreferentzia baliagarria dela uste dugu. Batetik, filosofiaz interesatzen den edonork, diziplina honetan erakargarrien zaizkion gaietan nondik hasi eta nora jo ikusi ahal izango baitu. Eta, bestetik, norberak gaiok modu akademikoan jorratzerakoan, kontuan izan beharreko irizpide formalak ere eskaintzen baitira.

Testuak idazteko aukeratutako pertsona gehienak filosofiaren profesionalak dira, horrelakorik bada behintzat. Batzuek unibertsitatean ematen dituzte eskolak, beste batzuk, berriz, ikertzaile gisa trebatzen ari dira gaur egun.

### ***LIBURU HAU NOLA ERABILI***

Liburua jarraian zein atalka irakur daiteke. Bere osotasunean hartzen bada, filosofiaren ikuspegi betea eskaintzen zaigula ohartuko gara. Atalez atal irakurtzen bada, berriz, gehien interesatzen zaizkigun alderdiak jorratu ahal izango ditugu.

Askotan salatu da filosofia gai zaila dela. Liburu honetan diziplinari propio zaion konplexutasunetik aparteko ezer ez sartzen ahalegindu gara. Hizkuntza teknikoak minimizatzen saiatu gara eta, oro har, arrotz izan daitezkeen hitzak agertu ahala definitzen. Jakina, goi-mailako ikasgai batek berez duen zailtasuna onartzen eta “azalckerian” ez erortzen saiatu gara. Lantzen diren zenbait gaik abstrakzio-maila altua dute eta nekez itzul daiteke hori hizkuntza xehera deballatu gabe.

Amaitzeko, gomendio bat: liburu hau ikuspuntu kritikoarekin irakurri behar da. Kritikotasuna suspertzeko eta pentsamenduan trebatzeko, liburu honetan aukera onak eskaintzen direla iruditzen zaigu. Dena dela, sarrera bakoitzak egilearen ikuspegia islatzen du; orain zuri, irakurle horri dagokizu letra eta paperetik harago joatea.

Joxe Azurmendi, Juan Bautista Bengoetxea, Joana Garmendia, Iñaki Soto (*argk.*)